

Umorea

Gizarte guztietan ematen den egoera afektiboa

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Eli Astiasaran

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

2012/08/05

ZER DA UMOREA?

Umorea, gauzen alderdi komiko edo alaia nabarmentzen duen adierazpen modua da, denbora tarte batean mantentzen den egoera afektiboa. Espiritu forma bat da, beraz, errealitatearen aspektu barregarri eta atseginak azpimarratzen dituena.

Umorea, inteligentzia formatzat hartu izan da. Egun, barreak leku garrantzitsua dauka gure gizartean, baina, historian zehar, umorearen lekua ez da beti berdina izan. Antzinako Grezian, umorea organismo bizidunek zuten likidoekin lotzen zuten. Kontzeptuak behazunari, karkaxari, odolari, malkoei eta gainerako giza gorputzaren likido eta jariakinei egiten zien erreferentzia. Beraz, iraganean, umoreak ez zuten graziadunik ezer, are gehiago, konotazio ezkorra zuten, zeina umorearen izaera transgresoreari aurka egiteko erabiltzen baitzen.

UMOREAREN BILAKAERA

Mundu intelektual edo akademikoan, K.a. V. mendean kokatzen dituzte komikotasunaren hastapenak, Grezian. Umorea neurtu edo mugatua izatea nahi zuten. Komikotasuna lantzeko espazio zehatzak eraiki eta zabaldu ziren, umorea leku jakinetara mugatuz. Garai hartan, barregarritasunak eta barreak lotura oso estua zuten negarrarekin. Barrea, negarrera igarotzeko zubitatz jotzen zuten; antzerki-lanen egiturek, esaterako, negar-barre-negar eskema jarraitzen zuten, eta antzezleek, ikusle goaren emozioen zuzendari izan nahi zuten, emozioa guztiz kontrolatzen zuten.

Hasiera haietan, urteetan zehar eta mende batzuk geroago ere, barrea, plazerarekin baino, malezia eta **erokeriari** lotuta zegoen fenomeno bezala definitzen zen. Barrea tabu bat bilakatu zen, eta akats fisiologikotzat ere jo izan zuten filosofo batek baino gehiagok, umorea gizakiaren ezaugarri txarra zelakoan.

Barrea erokeriari lotuta egotea ez da kasualitatea. Horretan guztian, kristau elizak eragin zuzena izan zuen. Fedeak eskaintzen zuen errealitateaz gain, beste zenbait errealitate ere bazirela agerian jartzen zen. Horren aurrean, elizak beldur izugarria zuen, bere bizitza-ikuskeraren eta erlijio kristauaren arrazoi oro hankaz gora jartzen baitziren. Barrea gainerako errealitate horien barnean kokatzen da, eta hala kokatu zuen elizak ere. Beraz, bere buruarentzat mehatxutzat jo zuen elizak barrea edota umorea.

UMOREAREN FUNTZIOAK

Umoreak izan ditzakeen funtzioak zerrendatzerakoan, guztiek haien arteko lotura oso zuzena dutela ikus daiteke:

- **Talde barneko kontrol soziala:** Talde barneko arauetara ongi moldatzen ez den norbanakoa irrigarri uztearen bidez zigortzen da. Teknika horiek, esaterako, oso erabiliak dira Japoniako exekutiboen prestakuntzako lantegietan.
- **Hierarkiak leuntzea:** Egun, zuzendaritza ezberdinentzako tresna bezala gomendatzen da.
- **Beldurrari aurre egitea:** Edozein mehatxuren aurrean sortzen diren beldurrak kontrolpean izateko tresna erabilgarria da umorea. Plazera, beldurraren ondorengo urratsa litzateke, hau da, beldurra arintzearen ostean sortzen da plazera. Gerrari, ospitaleei eta heriotzari loturiko antzeko egoeratan, umorea oso baliabide egokia da: umore beltza da adibiderik argiena.
- **Osasungarria eta lasaigarria:** Aristoteles filosofoak zioenez, komedia, errealitatearen isla izanik, egoera tragikoei mina kentzeko erabilgarria zen. Dirudienez, erlazio zuzena dago komikotasunaren estimua, bizitzeko gogoia eta gaixotasun bati aurre egiteko ahalmenaren artean. Umoreak gaixotasunak eta min psikologikoak eramaten lagun dezake, eta tresna terapeutiko gisa erabilia izan da.
- **Zapalkuntzaren aurkako errebolta:** Gizakiek gizarte bateko gobernuaren, erakundearen eta, oro har, boteretsuen aurka egiteko tresna baliotsua da umorea. Ez da erreboltarako tresna konbentzionala, erreboltarekiko ditugun betiko ideietatik urruntzen baita, adibidez, manifestazioak edo biolentzia bezalako ekintzetatik.
- **Gizarte-errealitatearen isla edo kritika:** “Kosmos umoristikoa” zaindu eta etxekotzeko beharra dago, ordena sozialarentzat mehatxu bilakatzea nahi ez bada. Gizartea eta gizakia bera kritikatzeko modu arina da umorea.

KULTURA KOMIKOA

Umorea maila mikro zein makroan egiten da. Maila mikroko umorea lagunartean, familian, talde edo lanbide jakinetan nahiz zuzeneko harremanetan gauzatzen dena izango litzateke. Ohiko adibideak ditugu, esaterako, sendagileen edo psikologoaren artean erabiltzen diren umorezko kodeak, zeinak inguru horretan murgiltzen direnek soilik ulertzen dituzten. Lagunartean egiten diren txisteak ere maila mikrokoak dira, kode propioak erabiltzen baitituzte, euren artean soilik ulertzeko. Maila horretan lantzen den umoreak bere legeak eraikitzen ditu.

Bestalde, maila makroan, gizarte- edo komunitate-mailako umorea dugu. Gizarte bakoitzak umore propioa garatu eta eraikitzen du. Beraz, norbanakoa dagoen espazioaren edo egoeraren arabera, kultura komikoa baztertzaila edo barne-hartzaila izan daiteke: umore-kode horiek ulertzeko tresnak badituzu, talde barnean sartua zaude; tresnak ez badituzu, ordea, talde kanpoan zaude; ez zara bat gehiago, arrotza zara.

KOMIKOAREN ADIERAZPEN MODUAK

Umorea adierazteko hainbat modu dauzkagu, betetzen duten funtzioarekin zerikusia dutenak. **Umore ona**, sana eta leuna dugu, ariketa intelektualik eskatzen ez duena eta egunerokotasuneko adierazpen ohikoena dena, egunean jasandako tentsioa arintzeko ahaleginetan. **Tragikomedia**, malkoen bidez, barrea eragiten duen umore adikor eta lasaigarria dela esan daiteke. **Umore beltza** dugu horren muturreko adibidea. Asmamena modu

kontzientean egiten den umore intelektuala dugu. Txistek, ironia eta parodia ditugu adibide ezagunak. **Satira**, ordea, komikotasuna helburu oldarkorrekin erabiltzen denean gauzatzen da. Mina egiteko intentzioa du, beraz, satira arma bat da: instituzioen, politikarien, gizarte-klaseen nahiz pertsona jakinen aurka erabiltzen den arma.

BA AL ZENEKIEN?

- ✓ **Barrea kutsakorra da.** 1962an, barrearen benetako epidemia bat izan zen Tanganyikan. Gaitzak milaka herritar jo zituen, batez ere gazteak eta nerabeak. Izurriteak zenbait hilabete iraun zuen eta hainbat eskola itxi behar izan zituzten.
- ✓ **Barre egitea atsegina da, ez, ordea, zutaz barre egitea.** Espainiako hainbat herri eta hiritan, "pikotak" aurki ditzakegu oraindik. Lapurrak eta gaizkileak zutabe horietan lotzen zituzten, jendaurrean umiliatzeko. Era horretan, barre-algararen botere hertsatzailea ordena publikoaren zerbitzura jartzen zuten.
- ✓ **Badaude barre egiten duten beste animalia espezie batzuk.** Primateez gain, beste hainbat ugaztunek keinu eta soinu zehatzak erabiltzen dituzte jolasaren unean. Arratoi eta txakurrekin hainbat ikerketa egin dira horri buruz.
- ✓ **Umore ona izatea eta barre egitea osasuntsuak dira.** Pentsamendu atseginek gogo-aldarteak hobetzeko balio dutela frogatu da, eta, ondorioz, baita gure defentsak areagotzeko ere. Barreak endorfinen ekoizpena areagotu egiten du, eta horiek analgesikoak dira burmuinerako. Gainera, barreak erritmo kardiakoa erregulatu, odol-presioa jaitsi eta estresa sortzen duten hormonen ekoizpena gutxiagotzen dituela esaten da.
- ✓ Britainiako Wolverhamptom Unibertsitateak egindako ikerketa baten arabera, **munduko txisterik zaharrena** K.a. 1900 urtean asmatu zen, Sumeriako zibilizazioan. Sumeriarrek gustuko zuten esaera zaharrak honako hau dio: "Denbora oso luzean gertatu ez den gauza bat: emakume batek senarraren magalean puzker bat botatzea".